

# **AZOKAREN ARAUDIA**

**Udalbatzarrak 1992ko urtarrilaren 31ean onartua (GAO 1992/02/20)**

## **Udalbatzarrak aldatua:**

**1993/10/08an (GAO 1994/01/26)**

**1996/03/29an (GAO 1996/08/02)**

**1997/03/14ean (GAO 1997/06/30)**

**2001/04/05ean (GAO 2001/04/20)**

**2010/12/02an (GAO 2011/04/27)**

## **KAPITULUA I. XEDAPEN OROKORRAK**

### **1. Artikulua.**

Udalak ezarritako hornidura zentro bat da azoka, jateko produktuak txikizka saltzeko, batez ere lehia libreko erregimenean eta saltoki kopuru handia pilatuz.

### **2. Artikulua.**

Azoka Mondragones kalea z/g inmueblean dago eta Otalora Lizentziaduna kalea eta Okendo kalearen L formako eraikineko sotoartekoa hartzen du, eta jabetza publikoko ondasuna da, zerbitzu publikoko azpitaldekoa, eta Udalaren ondasunen inbentario eta erregistro liburuan dator, 2 zenbakiarekin inskribaturik.

### **3. Artikulua.**

1) Zabalik egongo da azoka egunero, eta lan egutegiaren arabera finkatuko dira egun horiek.  
2) Gobernu Batzordeak ahalmena du zabaldu eta ixteko ordutegia finkatzeko, eta horiek aldatzeko, egoki irizten dionean, Saltzaileen Batzorde Kolaboratzaileari entzun eta hamar eguneko aurrerapenaz argitaratu eta gero.

### **4. Artikulua.**

Administratuek azokan duten jardueran esku hartu ahal izango du Udalak, premiazko kontsumo artikulua ematen direla ziurtatzeko, salgai eskainitako kalitatea, pisuaz edo neurriz saltzen dutenen zintzotasuna, baina edozelan ere Legearen aurrean berdintasun printzipiora egokituko du bere esku hartze hori.

Halaber, esku hartu ahal izango du Udalak, horri buruz dituen eskumenen barruan, egun jakin batzuetan zirkulazioaren antolaketa berezia egin behar denean eta beste batzuetan, merkatarien, erabiltzaileen eta kontsumitzaileen jarduera samurtzeko.

## **II. KAPITULUA. ESKUMENAK**

### **5. Artikulua.**

Udalbatzarraren eskumena da:

- a) Araudi hau onartu, aldatu edo derogatzea.
- b) Azoka lekuz aldatu, kendu edo beste berri bat eraikitzea.

### **6. Artikulua.**

Gobernu Batzordearen eskumena da:

- a) Azokako saltoki finakoak eta bereziak adjudikatzea.

- b) Hutsegite larri edo oso larrien ondoriozko santzioak ezartzea.
- c) Azokako ordutegiak eta zabaltzeko egunak finkatzea.
- d) Zerbitzuko zinegotzi ordezkariak, dagokion batzorde informatzaileak edo alkateak berak planteatzen dituen arazoak erabakitzea, eta garrantzitsuak izanez gero gaiok, horien berri ematea Udalbatzarrari.

#### **7. Artikulua.**

Alkatetzaren eskumena izango da, eta Zerbitzuko zinegotziari eskuordetu ahal izango dizkio:

- a) Azokako zerbitzua zuzendu, ikuskatu eta bultzatzea.
- b) Baserritarren saltokiak zuzenean adjudikatzea.
- c) Hutsegite larri eta oso larriei buruzko santzioak proposatzea, eta hutsegite arinei buruzkoak ezartzea.

### **III. KAPITULUA. SALTOKIAK**

#### **8. Artikulua.**

Saltokiak, azokaren esparru barruan merkataritza jarduera egiten den lekua, Arrasateko Udalarenak dira, eta zerbitzu publikoko ondasunen izaera dute eta, hortaz, inorenduezinak, enbargaezinak eta preskribiezinak dira.

#### **9. Artikulua.**

Saltokiak honela sailkatuko dira:

- a) Saltoki finkoak
- b) Saltoki bereziak
- c) Baserritarren saltokiak

#### **10. Artikulua.**

Saltoki finkoak izango dira etengabeen janari artikulua saltzeko diren azokako saltokiak, kasuen arabera, 1, 2 edo 3 modulu itxiek osatutakoak, Araudi honetako arauari jarraituz denbora jakin baterako adjudikatu dira eta.

#### **11. Artikulua.**

Saltoki bereziak dira kasuan kasuko adierazten diren produktuak saltzeko diren azokako saltokiak.

#### **12. Artikulua.**

Baserritarren saltokiak dira azokako esparruan, horma barik mugatzeko, baserriko produktuak saltzeko diren saltokiak, dagozkien tasak ordaindu eta gero.

Baserriko produktutzat jotzen ditugu lurra edo norbere abereak ustiatzetik datozenak.

Halaber, baserriko produktutzat joko ditugu eraldatu edo landutako produktuak, eta produktu horietan egiaztatu beharko dute lehengaia eta/edo produktuaren lantzea datorrela baserrian egindako lan ustiapenetik, baina kontuan izanik nahitaez bete behar dituztela indarrean dauden arauak

#### **13. Artikulua.**

Gobernu Batzordeak zehaztuko du zenbat saltoki egongo den, haien modalitatea, non jarri eta zer neurri izango duten, azokaren esparruaren azalerarekin bat eta biztanleriaren beharren arabera, eta behar bezala onartutako epe batean erabakiko du hori guztia.

## IV. KAPITULUA. AZOKAKO ARDURADUNA

### 14. Artikulua.

Azokako arduradunak, Udaleko plantillako funtzionarioa, egiteko hauek izango ditu:

- a) Azoka zabaldu eta ixtea, eta han egongo da bere egitekoak betetzeko.
- b) Azoka barruan jarduera normaltasunez egin dadin zaintzea, indarrean dauden legezko xedapenen arabera; ikusten dituen akatsen berri emango dizkio Udalari.
- c) Azoka behar bezala zaindu eta garbi mantentzea, denek erabili behar dituzten instalazioak behar bezala erabiltzea eta argiteria publikoaren kontsumo zentzuzkoa egin dadin begiratzea.
- d) Eraikina eta haren instalazioak kontserbatu eta horien mantenua egiten arduratzea, eta neurririk egokienak proposatzea azokaren jarduera behar den moduan egin dadin.
- e) Jendearen eta saltokietako titularren kexak eta erreklamazioei erantzutea, eta, hala badagokio, horien berri ematea Udalari.
- f) Zuzenean eragiten dizkien udal komunikazioen berri ematea saltokietako titularrei.
- g) Pisatze zerbitzua zaintzea.
- h) Osasun ikuskaritzako albaitari arduradunari erraztasuna ematea, bere zeregina bete dezan.
- i) Saltokiak hartzeko eskubideen diru bilketa egitea.
- j) Azokan gertatzen den garrantzizko guztiaren berri ematea etengabe alkateari edo Zerbitzuaren zinegotzi ordezkariari.
- k) Araudi honen ondorioz izan daitezkeenak edo Alkateak, Zerbitzuko zinegotzi ordezkariak edo ardura duen bulegoko buruak eskatzen dizkionak.

## V. KAPITULUA. SALTOKIEN ADJUDIKAZIOA

### 15. Artikulua.

Azokako saltokien erabilera, erabilera pribatiboa ekartzen dutenez, kontzesio administratiboaren mende egongo da.

### 16. Artikulua.

Saltoki finko eta berezien kontzesioaren helburua da era pribatiboan, izaera eskusiboaz, gehienez ere azokako saltoki finko edo berezi bat edo bi hartzeko eskubidea, zehazten diren artikuluen txikizka saltzeko helburuaz eta obligazioaz.

### 17. Artikulua.

Lehiaketa Publikoan adjudikatuko dira saltoki finkoak eta bereziak, oro har eskaintzarik onuragarrienari, eta proposamen ekonomikoa ez ezik beste faktore batzuk ere hartuko dira kontuan, hala nola, lizitatzailen profesionaltasuna, esperientzia eta ele bietan komunikatzeko gaitasuna.

Lehen lizitazioan adjudikatzen ez badira saltokiak, lizitatzailerik ez dagoelako edo aurkeztu diren proposamenak ez direlako onargarri deklaratu, Udalak zuzenean eman ahal izango dizkie kontzesioak, lehen lizitazioan eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte, saltokia erabili eta ustiatzeko interesa agertzen dutenei; beti ere, gehienez ere, aurreko lizitaziotik urte bi pasatu ez badira.

Kontzesio administratiboaren ondorioz, lehen instantzian, adjudikatario horrek lizitaziotik sortzen den prezioa ordainduko du, eta aldizka ordainduko du dagokion erabilera kanona, dagokion Ordenantza Fiskalean aurreikusitakoaren arabera finkatuko dena. Kanon hori urtero begiratuko da, eta Ordenantzan sartzen diren aldaketak aplikatuko dira.

### **18. Artikulua.**

Baserritarren saltokiak zuzenean adjudikatuko dira, sektore horretan biltzen diren gorabeherak ikusita. Ordenantza Fiskalaren arabera, okupatze kanona baino ez du ordainduko hileru adjudikatariorak.

### **19. Artikulua.**

20 urtekoa izango da gehienez postu finkeen esleipenaren iraupena. Postu berezien esleipenaren iraupena, ordea, 9 urtekoa izango da gehienez, aste bakoitzeko asteazken eta ostiraletan edo, hala behar denean, aste bakoitzeko astearte, ostegun eta larunbatetan erabilia. Bestalde, baserritarren postuak urtebeterako esleituko dira.

Edozelan ere, edozein izanda ere kontzesioen adjudikazio eguna, saltoki finkeen kasuan 2010eko abenduaren 31n iraungiko dira eta saltoki berezietan 2000ko abenduaren 31n eta baserritarren saltokiak urtearen abenduaren 31n.

### **20. Artikulua.**

Kontzesiodunak beharturik daude eurek zuzenean eramatera saltokia, Araudi honetako 21. artikulua 3. atalean xedatutakoa salbu, eta guztiz debekatuta daukate saltokia guztiz edo zati batez errentan ematea.

### **21. Artikulua.**

- 1) Kontzesioaren titular izango dira gaitasun juridiko osoa duten pertsona naturalak edo juridikoak.
- 2) Indarrean dagoen udal legerian adierazten diren ezintasun kasuetan dauden titularrak ezingo dira titular izan.
- 3) Hil delako eskualdaketa kasuetan bakarrik oinordetu ahal izango dituzte adin txikikoek edo adin nagusikoek saltokiko titularra, eta legez baimena dutenek ordezkaturako dituzte.

### **22. Artikulua.**

- 1) Hilez gero, titularraren oinordeko edo saltoki horren legatudun denaren alde eskualdatuko dira saltoki finkeak eta bereziak.
- 2) Saltoki finkea edo berezia "mortis causa" eskualdatuz gero, zatitugabe (pro indiviso) bi edo pertsona gehiagori, horiek, hiru hileko epean, Udalarari adierazi beharko diote horietako zeinek oinordetuko duen saltokiko titularitate. Epe horretan egin ezean, iraungitzat jo ahal izango da baimena.

### **23. Artikulua.**

- 1) Testamentuko xedapenik egon ezean, saltoki finkea edo berezia titularraren ezkontidearen, seme-alaben, iloben, gurasoen alde eskualdatuko da, ordena horren arabera. Maila berean lehentasuna emango zaio saltokian titularrari lagundu diola egiaztatzen duenari, hura hil aurreko hiru urteetan, eta ez badago, zaharrenaren alde.
- 2) Adierazitako ahaiderik egon ezean, bete gabe deklaraturako da saltokia.

### **24. Artikulua.**

Baserritarren saltokien kasuan, titularra hilez gero, kontzesioa amaituko da, ezelako eskubide barik haren oinordekoentzat.

### **25. Artikulua.**

- 1) Saltoki finke eta berezien kontzesiodunek saltokiok eskualdatu ahal izango dituzte, eta destino bera gordeko dute, Udaltzarak baimendu ostean eta Ordenantza Fiskalean hartarako ezarrita dauden eskubideak ordaindu eta gero.

2)Edozelan ere eta, salbuespenez, saltoki finkoak eskualdatzeak seme-alaben aldea (edo seme-alabek gurasoei) edo ezkontidearen aldea (edo hartarako sortutako erregistroetan izatezko bikote baten kidea), erretiro edo laneko ezintasun etengabekoaren kasuetarako, ez du eskatzen diru kopururik ordaintzeko, baina, edozelan ere, Udalak baimendu behar du eskualdatzea eta hasierako destinoa gordeko du saltokiak.

3)Udalbatzak lehentasunez erosteko eskubidea erabili ahal izango du, eta hartarako adjudikatarioak, eskualdatzeko baimena eskatzean, aurreikusitako eskualdatzearen zenbatekoa deklaratu du, eta Udalak bi hileko epean erantzungo dio eskaerari eta hala egin ezean baimena duela ulertuko da.

## **26. Artikulua.**

Araudi honetako beste manamendu batzuetan xedatzen denaren kalterik gabe, arrazoi hauengatik iraungiko dira kontzesioak:

- a) Titularrak uko egite espresua eta idatzia.
- b) Titularra hiltzea, Araudi honetako 22 eta 23. artikuluetan xedatutakoa salbu.
- c) Sozietate titularra desegitea.
- d) Araudi honetako 21.2 artikuluan eskatzen diren baldintzetako baten bat galtzea.
- e) Kontzesioaren indarraldirako adjudikazioan adierazten den epea amaitzea.
- f) Araudi honetako 50, 51 eta 52. artikuluetan manatutakoaren arabera, arau hauste oso larriagatik.
- g) Kasu batean ere ez zaie kontzesiorik emango 65 urte bete duten merkatariak.

## **VI. KAPITULUA. SALTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

### **27. Artikulua.**

Saltokietako titularrei dagokie beren jarduerak ezarritako moduan burutzeko behar diren zerbitzu publikoko ondasunak erabiltzeko eskubidea.

### **28. Artikulua.**

Udalak ez du beregain hartuko erantzukizunik, merkantziak kaltetu, ostu edo hondatu badira. Zaintzeko erantzukizuna ere ez du beregain hartuko, nahiz eta azoka zaintzea bere esku egon.

### **29. Artikulua.**

Araudi honetako 16. artikulua aipatzen duen saltokien zertarakoa inoiz ezingo da aldatu udal baimen barik.

### **30. Artikulua.**

Eraikina, patioa eta denen instalazioak kontserbatu, mantendu eta garbitzea Udalak beregain hartuko dituen obligazioak izango dira, eta zuzenean edo egoki iritzitako beste formula batzuek egin ahal izango ditu horiek guztiak.

### **31. Artikulua.**

Saltokietan egiten diren obrek eta instalazioek, nahiz eta txikiak izan, Udal Administrazioaren baimena behar izango dute aurretik, eta ezarri ahal izango ditu zer-nolako eraikuntza materialak behar diren, horien ezaugarri estetikoak, aireztatzeko sistema ereduak edo motak eta egoki iritzitako hainbat baldintza.

### **32. Artikulua.**

Azokaren inmiebleko zoruari, hornei eta haren gainerako elementuei etengabe lotuta

geratzen diren obrak eta instalazioak udal jabetzakoak izango dira.

### **33. Artikulua.**

Saltoki bakoitzean jarduteko behar diren instalazioak titularren kontura joango dira.

### **34. Artikulua.**

Saltokietako titularrek bere lokaletan denen interesekoak edo beharrezkoa diren obrak baimenduko dituzte nahitaez, Udalak erabakitzen dituen zerbitzuak egin daitezen, erreklamatu edo kalte ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, obra horien ondorioz titularren jarduera egiterik ez badago, behintzat.

### **35. Artikulua.**

Saltokietako titularrek betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Zabalik izatea jendearentzat etengabe, Udalak jarritako salmenta orduetan.
- b) Saltokiak egoera onean kontserbatzea, eta berdin instalazioak, garbi egon daitezen, hondakinik gabe eta higiene egoera egokian.
- c) Garatzen den jarduerari dagokion Industria Zerga, Lizentzia Fiskalean alta hartzea, eta dagozkion zergei eta tasei erantzutea. Zerbitzua betetzeko behar diren langileei dagozkien Gizarte Segurantzaren eta Laneko Prebisioren eta Seguratasunaren alorrean sortzen diren obligazioak betetzea.
- d) Saltokian jartzen diren elektrizitate, telefono, ur eta gainerako zerbitzuen kontsumoaren kostua ordaintzea.
- e) Erantzukizun zibileko poliza bat sinatzea, gutxienez 15.000.000 pezetako kapital bat bermatzeko saltoki finkoen kasuan eta 5.000.000 pezetakoa saltoki berezien kasuan.
- f) Pisatu eta neurtzeko tresnak erabiltzea, baimendutako ereduera egokitu, eta Udalak, bere ardurapena dagoen langilearen bitartez, tresna horiek zuzen dauden egiaztatu ahal izango du.
- g) Saltzen diren artikulu guztiak jendearen begi bistan edukitzea, eta horien zatiren bat ezingo da gorde, aukeratu edo ezkutatu; asko direlako eta jartzeko formarengatik denak jende aurrean jarri ezin direnean izan ezik.
- h) Albaitari ikuskatzaileari erakustea salgaiak, eta hark bahitu edo deuseztatu ahal izango ditu, osasun publikorako kaltegarri deklaratu gero.
- i) Behar den moduko jantziak jantzea apain.
- j) Dagozkion kanona eta gainerako ordainarazpenak ordaintzea.

### **36. Artikulua.**

Saltzaileek debekatuta daukate hau guztia egitea saltokietan:

- a) Elikagaiak manipulatzeko karneta eduki barik jardutea.
- b) Saltokian edukitzea zakuak, kaxak, ontziak eta tresneria hutsik edo garbitu barik, lekuaren osasun higiene baldintzak aldatu edo eragiten dituztenen.
- c) Saltokietan saltzeko diren animaliak hiltzea eta hegaztiak lumatuta dauden edo untxiak edo antzeko beste animalia batzuek larrututa dauden egiaztatzea saltokietan.
- d) Legez ezarritako edo agintari eskudunek emandako higiene-osasun arauak hautsiz saltzen diren elikagaiak zerbitzatu, entregatu edo biltzea.
- e) Gainerako sailtzaileen kaltetan gehiegizko propaganda edo publizitatea egitea, eta bozgorailuak eta beste tresna akustiko batzuk erabiltzea.

## **VII. KAPITULUA. SALTZAILEEN BATZORDE KOLABORATZAILEARI BURUZ**

### **Artikuluia 37.**

1) Udalarentzat izaera ez erabakitzailea eta ez lotesleaz, azokako saltzaileak ordezkatzeko saltzaileen batzorde bat eratu ahal izango da; batzorde horrek eskatu, informatu edo iradoki egin ahal izango du azokaren jardun onerako komenigarritzat jotzen dituen jardunetan, eta erosle eta saltzaileen kexak bideratuko ditu, eta azokako arduradunarekin edo Udalaren ordezkariekin elkarrizketatu daitezke, beharrezkotzat jotzen dutenean.

2) Oro har, batzordeak Udalarekin jardungo du elkarlanean, azokako arazoak hobeto konpontzeko eta behar bezalako jarduera izateko

### **38. Artikuluia.**

1) Adar bateko kide guztiek izendaturik, saltokietako titular diren adar bakoitzeko bi ordezkari osatuko dute saltzaileen batzordea.

2) Batzordeburua eta idazkaria batzordeko kideen artean izendatuko dira gehiengo absolutuz, eta bi urterik behin berrituko dira kargu horiek.

### **39. Artikuluia.**

Batzordeak azokan edo udaletxean egingo ditu bilerak, kasu hauetan:

- a) Batzordeburuak deitzen dituenean, bere ekimenez.
- b) Kideen gehiengoak eskatzen dituenean.
- c) Alkatearen edo Zerbitzuaren ponentearen ekimenez.

## **VIII. KAPITULUA. OSASUN IKUSKAPENA**

### **40. Artikuluia.**

Albaitari ikuskatzaileak udal azokako instalazioak eta dependentzien higiene kontrola izango du bere kargura, bai eta hor saldu behar diren elikagaien osasun ikuskatzea ere.

### **41. Artikuluia.**

1) Albaitari ikuskatzaileak egunero egiaztatuko du zer-nolako egoeran dauden saltokiak eta instalazioak, eta ikusten dituen akatsak zuzentzeko aginduko du.

2) Beharrezko jotzen dituen neurriak hartuko ditu, saltzean subprodukturik eta hondarrik ez izateko eta ez pilatzeko, eta udal agintariei horretarako behar diren neurriak hartzeko proposatuko die.

3) Egunero eta arreta osoaz aztertuko ditu saltzen jarritako elikagaien osasun baldintzak, zerbitzuaren eraginkortasunak eta Udal Agintaritzarako agindutakoa betetzeak eskatzen duten hainbat, eta laginak hartuko ditu egoki iritzitako kasuetan, eta laboratorio ofizialera bidaliko ditu.

### **42. Artikuluia.**

Okela fresko guztiak, bai eta izoztuak eta hoztuak ere, behar bezala dokumentaturik doazela egiaztatuko du, eta hala aurkezten ez direnak bahitu eta esku hartu egingo ditu, arauzko eskakizunak bete eta gero. Halaber, produktu horiek zirkulatzeko indarrean dagoen legeriak ezartzen duen osasun ikuskapena egingo du.

### **43. Artikuluia.**

Xehetasun handiz ikuskatuko ditu saltokietan dauden arrain eta otarrainska guztiak, eta zainduko du, salmenta operazioek dirauten bitartean azoka garbitzeko lanik ez egiteko edo azokaren osasuna aldatu dezaketenean beste operazio batzuk ez egiteko. Ezingo da arrainik garbitu eta ezingo da saldu lehenengoz erabiltzeko ez den zurezko ontzirik.

#### **44. Artikulua.**

Berariaz okela saltzeko ez diren lekuetan jarritako eta jarduera horretarako erabili nahi dituzten hozkailu mostradoreek udal eta osasun baimena izan dezaten zainduko du.

#### **45. Artikulua.**

Jendearen kontsumora jartzeko behar diren baldintzak betetzen ez dituzten elikagaiak bahitzeko aginduko du albaitari titularrak, eta gero deuseztatzeko, eta dagokion akta egingo du eta horren kopia bat emango dio afektatutako industrialari, eta, ados egon ezean, halako diktamen kontrajarrietarako ezarritako legezko arauak jarraituko dira.

#### **46. Artikulua.**

Albaitari ikuskatzaileak kasu egingo die erosleek aurkezten dizkioten elikagaien osasunari buruzko erreklamazioak, eta erreklamazioak bidezkoak diren edo ez diktaminatuko du eta dagokion txostena egingo du.

#### **47. Artikulua.**

Albaitari ikuskatzaileak erregistro liburu bat edukiko du, eta liburu horretan idatziko ditu, ikuskatu dituen merkantziak, bahitu dituenak, esku hartu dituen produktuak, eta zerbitzuan gertatu diren gorabeherak. Liburuan idatzitako datuak oinarri izango dira Alkatetzara bidali behar diren zerbitzu orriak egiteko.

#### **48. Artikulua.**

Udaleko albaitari ikuskatzailearen aginte izaera kontuan izanik, azokan duen egitekoa betetzen duen aldiaren, azokako zerbitzuaren udal langilea haren mende egongo da, eta eskatzen dizkion laguntza eta zerbitzuak eman beharko dizkio.

### **IX. KAPITULUA. ARAU HAUSTEAK ETA SANTZIOAK**

#### **49. Artikulua.**

Titularrek eurek, haien familiakoek edo saltokian zerbitzua ematen duten soldatapekoek Araudi honetako arauak hausten badituzte, saltokietako titularrak izango dira horien erantzule.

#### **50. Artikulua.**

Hutsegite arinak izango dira:

- a) Saltokia eta ingurua garbi ez izatea eta saltzaileak garbi ez egotea.
- b) Borrokak edo istiluak.
- c) Saltokiak baimen barik eta justifikazio barik ixtea, egun batetik bostera bitartean.
- d) Ordenantza honetako edozein informazio, hutsegite larri edo oso larri moduan kalifikatu ez dena.

#### **51. Artikulua.**

Hutsegite larriak izango dira:

- a) Urte berean izaera bereko hutsegite arin bat berriro egitea.
- b) Urte batean hirugarren hutsegite arina egitea.
- c) Saldutako generoen kopuruan eta kalitatean iruzur egitea.
- d) Osasun betebeharrak behin eta berriro ez betetzea.
- e) Saltoki baimen barik eta justifikazio barik ixtea bost egunetik gora.
- f) Irain eginez udal aginteak emandako xedapenak ez betetzea.
- g) Kasu bakoitzean adierazitako epeetan eskubideak ez ordaintzea.



## **52. Artikulua.**

Hutsegite oso larriak izango dira:

- a) Urtean edozein izaerako hutsegite larriak behin eta berriro egitea.
- b) Saltokia eskualdatzea, behar den baimena lortu barik.
- c) Saltokia hiru hilean uztea justifikazio barik.
- d) Saltokietako egitura edo instalazioak aldatzea, behar den baimen barik.
- e) Saltokia errentan ematea.

## **53. Artikulua.**

1.- Hutsegite arinetan santzio hauek ezarriko dira:

- a) Ohartaraztea.
- b) 500etik 5.000 PT Ara bitarteko isuna.

2.- Hutsegite larrietarako:

- a) 5.000tik 50.000 PT Ara bitarteko isunak.
- b) Kontzesioa aldi batez etetea, 5 egunetik 20 egunera.

3.- Hutsegite oso larrietarako:

- a) Kontzesioa aldi batez etetea, 20 egunetik 6 hilera.
- b) Kontzesioa iraungitzea, kalte ordaina izateko eskubide barik.

## **54. Artikulua.**

1) Alkateak santzionatuko ditu hutsegite arinak, arau hausleari entzun eta gero:

2) Hutsegite larria eta oso larriatik santzioa jartzea Gobernu Batzordeari dagokio, espedientea egin eta gero, Administrazio Jardunbideari buruzko Legean xedatutakoaren arabera.

# **X. KAPITULUA. BALIABIDEAK ETA ERREKLAMAZIOAK**

## **55. Artikulua.**

1) Azokako arduradunaren jarraibideen aurka eta, oro har, egintza administratiboaren kalifikazioa ez duen edozein agindu edo egitatezko egoeraren aurka, alkateari erreklamatu ahal izango zaio.

2) Alkatearen, Gobernu Batzordearen eta Udalbatzarraren egintzen aurka, indarrean dauden xedapenetan aurreikusten diren errekurso administrazioak eta jurisdikzionalak jarri ahal izango dira.

## **XEDAPEN GEHIGARRIA**

1982ko azaroaren 24ko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legean, eta azaroaren 25eko 250/1986 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioetan Euskara erabili eta normalizatzeari buruz, xedatutakoa betetzeko, ahalik eta gehien sustatuko da euskararen erabilera azokaren eremuan, eta Udaleko Euskara Zerbitzua arduratuko da Udalbatzari proposatzeaz zer neurri hartu behar duen helburu hori lortzeko.

## **BUKAERAKO XEDAPENA**

Araudi hau, 55 artikulua, xedapen gehigarri batek eta bukaerako xedapen batek osatua, Udalak behin betiko onartu eta testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoan jarriko da indarrean.